

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 10a / 495. zenbakia



JALGI HADI DANTZARA!

LEHENGO ERROMERIAK BERRESKURATU
ETA EUSKAL FOLKLOREAN
DANTZARI DAGOKION LEKUA EMATEKO,
ERROMERIA ERRALDOIA BIHAR

ELKARRIZKETA: ELI MORENO SEXOLOGOA/7 • BKE: URREZKO EZTEIETAKO OSPAKIZUNAK, HASTEAR/10

CITROËN C3 BERRIA



C3 berria:
probatu emozioa
Ion Autoak-en!



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga, 36. Bergara. Tel. 943 76 47 49 / 73

ATREBENTZIAEZPADA/ Erromerixa zalia za? Gustatzen jatzu erromerixetan dantza egittia?



NORA ACHABAR
23 urte



TERESA RODRÍGUEZ
64 urte



EDUARDO PEREIRA
31 urte



BEATRIZ DÁVILA
33 urte



SABIN ZELAIA
79 urte



JESUS URMENETA
64 urte

Ez jat erromerixak gustatzen, behin be ez dot erromerixetan dantzarik egin. Dantza egittia gustatzen jat, baiña tabernetan edo diskoteketan. Ez naiz kalian salto egittekua.

Bai, asko gustatzen jat erromerixak. Gaur egun, ez dot dantzarik egitten, nagusituta nago-eta, baiña lehen, asko egitten neban. Oin, gaztiaguet egin bihar dabe dantzan.

Ez dot erromerixetan dantzarik egitten. Ez jat bat be gustatzen dantza egittia, eta tabernetan be ez dot dantzarik egitten. Batzuetan, igoa, pixka bat, baiña oso-oso gutxi.

Gustatzen jat erromerixetan datza egittia, baiña gaur egun ez dot egitten. Gaztetxuagua nitzanian bai, baiña oin ez. Dana dala, tabernetan dantza egittia gehixago gustatzen jat.

Asko gustatzen jat erromerixak, baiña gaur egunian ez dot egitten, zahartuta nago-eta. Dantzari izandakua naiz, gaiñera, Oñatin, eta soldadutzan be bai.

Gustatzen jat, baiña ez dot egitten. Beste batzuek dantza zela egitten daben ikustia gustatzen jat, ambientia-eta. Gaztetan be ez neban askorik egitten, jai danetan lanian nenbillen-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ZULO ARRISKUTSUAK Juan Irazabal pasealekuan izugarrizko zuloak daude zoruan. Galtzada-harria jasota dago hainbat lekutan, eta horrek sakonera handiko zuloak eragin ditu. Autoarekin pasatuz gero aberiaren bat egitea ez da zaila izango. Eta oinezkoendako, zer esanik ez. Pixka bat despistatuta joan eta oina bertan sartuz gero, akabo. /MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /10

KULTURA /12

Udaltzain berriak

Bergarako Udalak hiru udaltzain kontratatu ditu. Uztailetik aurrera ekingo diote lanari herrian.

Bergara KEren 50. urteurrena

Aurten, 50 urte beteko dira Bergara KE sortu zenetik. Ospakizunak hilaren 25ean hasiko dira.

Erromeria erraldoia

Bihar, zapatua, Jalgi Hadi Dantza-erraldoia egongo da egun osoan barrena.

ASTEKODATUA

19

KALE GARBITZAILEEK GREBAN DARAMATEN EGUNAK

Cespa enpresako kale garbitzaileek mugagabeko grebari ekin zioten apirilaren 22an. Gaur, maiatzak 10 da; hortaz, 19 egun daramatzate greban. Kaleetan guztiz nabaria da dagoeneko.

BESTEKEESANA

“Gutiz sinesgaitza dirudien arren, gosea eta pobrezia dira orain nagusi Argentinan. Horren adierazgarri ditugu dagoeneko ezagunak zaizkigun ‘corralito’ak, ‘cacerolazo’ak, harrapaketak, debaluazioa. Hau guztia dela eta, Euskal Herritik joan zirenen biloba edo seme-alabetako batzuek itzultzea erabaki dute. Bazekiten zailtasun ugari izango zituztela, izan ere, hutsetik hastea ez baita inorentzat erraza. Dena den, hemen lasaitasunak ez du preziorik, gogorra izan behar baita zaborra ateratzera ere pistolarekin joan beharra... Arazoak aspalditik omen datoz, faktore asko eta ezberdinak elkartu direlarik, eta denak bat datoz irtenbideak ez direla epe laburrean ikusiko esatean.

ITZIAR LARRAÑAGA
‘Jarduneari’/02ko Udaberria

BERAIEKDIÑO/ Maite Aristegi



Umeen mina, gizarteak eragina

Mundu guztiko umeak izan ditugu hizpide azken egunetan. Umeen gosea, lan astunak, tratu txarrak, prostituitu beharra, eskolarik eza, gaixotasunak, heriotzak, ... milioikako kopurutan entzun ditugu. Izan ere, Munduak ez du, ezta gutxiagorik ere, 1990eko Haurtzaroren inguruko Gailurrean hartutako erabakirik bete, ez ezinezkoak edo gehiegizkoak zirelako, baizik eta horretarako borondate politikorik eta inbertsiorik ez delako egon. Gure txikienak ditugu eta antolatzen ari garen mundu aldrebes honen lehengo sufritzaileak. Horregatik, min handia ematen du bereziki agintari askoren hipokresia. Izan ere, neoliberalismoa, garapen eredu ekonomizista eta produktibista hutsa, gutxi batzuen diru pilatzea bultzatuz, munduko gehiengoaren egoera ekonomikoa eta sozialaren txartzea baino ez da ekartzen ari; eta haurren miseria

erakusten digu errealitate horren gordintasuna. Munduko ekonomia milioika milioi dolar mugitzen ari den bitartean, milioika umek hilean dolar bat baino ez du irauteko. Eta nola ahaztu Vietnam, Errusia, Hego Amerika, Karibia, Afganistan, Palestinako istorioak entzute-

“Munduak ez du 1990eko Haurtzaroren inguruko Gailurrean hartutako erabakirik bete”

an, gerra egun batean gastatutakoarekin komunitate osoei betirako ura edo hilabeteetarako janaria emateko aukera dagoela.

Eta txikiegiak izan arren edo lan arriskutsuetan lana egiten duten umeen %70ak nekazaritza

eta arrantzan ari dira, batik bat, herri aberatsetarako produktu merkeak prestatzen. Globalizazio dantsua; umeak erabiliz, nekazariak esklabizatuz, hango janari subiranotasuna galdu, “herri aberatsetakooi” ere galdu araziz, hemengo nekazaritza ere desagerraraziz. Erosten dugunok ere badugu zer pentsatua. Elkartasuna eta beste era bateko munduaren aldeko borroka, gure erantzuna.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA

Monika Belastegi,

Aintzane Irizar

MAKETAZIOA

Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK

Luis Mari Agirre

Maitane Arizabaleta

Juan Martin Elexpuru

Miguel Angel

Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA

SS-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 10**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 11**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 12**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 13**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 14**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 15**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 16**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Anglozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako enafaria ekainaren 1ean Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinar eta meza ostean taldeko argazkia aterako dute. Izenematea (15 euro alde aurretik) Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jatetxean.

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotako enafaria ekainaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (12 euro) Irrintzi kafetegian ekainaren 5era arte.

PILOTA SAILEKO ZOZKETA
Bergara KEko Pilota Saileko zozketan 4.766 zorbakiak jaso du lehen saria. Irabazleak buruz buruko finalerako bi sarrera eta 500 euro jasoko ditu. Bigarren saria 3.770 zorbakiarendako izan da; saria, lau lagunendako afaria Infernukua tabernan eta 200 euro.

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaileen Elkartek jakinarazi duenez, eguaztenean, maiatzaren 15ean, odol ateratzea egingo dute, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Elkartek dei egiten die emaleei odola ematera joateko.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AISIALDIA
Domeka arratsaldean, Euskal Kantu lantegia egingo dute kartzelan.

OLINPIADAK ATZERATU
Maiatzaren 25ean hasiko dira Olinpiadak. Bien bitartean, 8-11 urteko gaztetxoek izena emateko aukera daukate. Argibideak Jardunen: 943 76 08 19.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Aitor Zabaleta bigarren Jaizkibelgo Igoeran


Aitor Zabaleta bigarren sailkatu zen 1992ko maiatzaren 10ean jokaturako Jaizkibelgo Igoeran. Bi txandetan Zabaleta bigarren izan zen, Vilariñoren atzetik. Lehenbiziko txandan bi segundo eta 13 ehuneneko alde atera zion Vilariñok, eta bigarren txandan 66 ehuneneko besterik ez.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kaskaillua"

Handia eta ergel samarra.
-Ermentarixan kriauekin ein jua burrukan: aundi kaskaillu bat..



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Astelehena, 6 **6 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 1 **16 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
81,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	16 °C	10 °C	9,6 l/m ²
Eguena, 2	12 °C	7 °C	25,8 l/m ²
Egubakoitza, 3	12 °C	6 °C	24,9 l/m ²
Zapatua, 4	13 °C	6 °C	2 l/m ²
Domeka, 5	16 °C	7 °C	10,4 l/m ²
Astelehena, 6	12 °C	6 °C	0,2 l/m ²
Martitzena, 7	13 °C	10 °C	8,7 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'LA HABITACIÓN DEL PÁNICO'

ZUZENDARIA: DAVID FINCHER. AKTORE-
AK: JODIE FOSTER, KRISTEN STEWART, FOREST
WHITAKER.

HARIA. Emakume bat eta alaba New York-eko etxe baten bizi dira. Lapur batzuei logelan gordetako zerbait interesatzen zaie.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'PETER PAN, REGRESO AL PAÍS...'

ZUZENDARIA: ROBIN BUDD ETA DONOVAN COOK.

HARIA. Marrazki bizidunetako filma. Peter Pan-en mundu miragarria utzi eta gero, Wendy ezkondu egingo da eta bi seme-alabek izango ditu. Iraganeko abenturak kontatuko dizkie. Kako kapitaina itzuli eta Wendy-ren alaba bahituko du...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49

Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

LASTER ZABALIK
Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

JARDUN/ Batzar Orokorrean datorren urterako asmo eta egitasmoen berri eman zuten

Gazte eta nagusiendako bertso eskolak martxan jartzeko lanean ari da Jardun

MONIKA BELASTEGI

Martitzenean, Jardun Euskara Elkarteko Batzar Orokorra izan zen. Diru kontuak, zuzendaritzako hainbat kideren aldaketa eta 2002rako asmoen berri eman zuten elkarteok. Besteak beste, gazte eta helduendako bertso eskolak martxan jartzeko asmoa dute.

Oraingo astean, Batzar Orokorra egin du Jardun Euskara Elkartek. Gai ordenak sei puntu zituen: besteak beste, iazko memoriaren azalpena, aurtengo urterako asmo eta egitasmoen azalpena eta zuzendaritzan izan diren aldaketen berri eman eta horiek onartzea.

Iazko memoriari dagokionez, urtean barrena egindako ekitaldi, saio eta ikastaroen berri eman zuten eta orokorrean ekitaldiek izandako partehartze zabala azpimarratu eta horien balorazio positiboa egin zuten.

Berritasun nagusienak, baina, aurtengo asmo eta egitasmoen atalean izan ziren. Horien artean, gazte eta nagusiendako bertso eskolak jarri nahi ditu martxan Jardunek 2002-03 ikasturterako.

BERTSOLARITZA BULTZATU NAHIAN

Bertsolaletasunari eta, oro har, bertsolaritzari bultzada eman behar zaiola sumatu dute Jarduneko kideek. Hamarkada askotan gure herriak bertsolaritzarekin izan duen lotura gero eta ahulago dago, eta gure kulturaren oinarri izan diren ahozko literatura- ren, kantu zaharren, kanturako joeraren eta bertsolaritzaren transmisioa kolokan daudela uste dute. Hala, Ainhoa Agirreazaldegiri bertsolariarekin harremanetan



Martitzenean izan zen Batzar Orokorra, kultura etxean, eta zuzendaritzan egindako aldaketen berri ere eman zuten.

Iaz antolatutako ekitaldiek izandako parte hartze zabala azpimarratu du Jardunek

jarri eta, galtzen ari diren ohitura eta zaletasun horiek Bergaran berpizteko asmoz, bi bertso eskola martxan jartzeko proiektua egin dute: bata, gazteendako, eta bestea, nagusiendako.

Ume eta nagusiendako bertso eskolak jarri nahi dituzte martxan 2002-3 ikasturterako

Bertso eskolak 2002-03 ikasturtean hasiko dira martxan, baina epe luzera egindako proiektua izango da hori.

Helduen bertso eskolari dagokionez, helburu nagusia izango

Bazkide kuota 30 eurora igotzea erabaki zuten martitzeneko Batzar Orokorrean

da izena eman duten kideak batbateko bertso jardunean trebatzea. Horretarako, eta taldearen sarreramaillaren arabera, bertsoan bat-batean egiteko arietak eskura jarriko dizkiete. Bes-

talde, bertso eskola ez dute modu magistralean emango, eta astean behingo maiztasuna izango dute, aldiro bi orduko iraupenarekin.

Umeen bertso eskolari dagokionez, ez da goi ez behe muga zehatzik egongo, eta izena ematen duten umeen araberrako taldeak egingo dituzte. Eskolek astean behingo maiztasuna izango dute eta iraupena ordu eta erdikoa izango da, eta funtsean, helduekin landuko dituzten arloak landuko dituzte, baina umeen mailara egokituta, jakina.

Bertso eskolek ikasturteko funtzionatuko dute: irailaren erdialdera hasi eta ekainera arte luzatuko dira, hain zuzen ere.

ALDAKETAK ZUZENDARITZAN

Batzar Orokorrean zuzendaritzan izan diren aldaketen berri ere eman zuten. Honako hauek, hain justu ere: idazkari berria Gurutze Ariznabarreta izango da; kultura arduraduna, Alberto Lazpiur; kultura dinamizatzailea, Eider Arzelus; eta errefortzuetako arduraduna, Amaia Epelde.

Horrez gain, kuotaren gainerako erabakia ere hartu zuten martitzeneko batzordean. Bazkide kuota 30 eurora igotzea onartu zuten aho batez, eta langabe eta ikasleen kasuan, sei eurora.

JOLASLEKU IBILTARIA

Jolasleku Ibiltaria programa antolatu du Jardunek hirugarren urtez, sei eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoendako.

Lau saio egongo dira, guztiak 17:00etatik aurrera. Lehenengo gaur, egubakoitza, izango da, Fraisko zurin; bigarrena hilaren 24an, Boluko plazan; hirugarrena, berriz, ekainaren 7an, Espoioian; eta azkena, ekainaren 21ean, Usondo parkean.



Kale garbitzaileak, oraindik greban

Cespa enpresako kale garbitzaileak greban jarraitzen dute oraindik ere.

Gaur, egubakoitza, hementz egun bete dira mugagabeko grebari ekin ziotela. Eta oso nabaria da dagoeneko herriko kaleetan zikinkeria zelari den pilatzen.

Eguazten iluntzean, manifestazioa egin zuten langileek, enpresako zuzendaritzaren jarrera salatu eta lan-hitzarmen duina eskatzeko. Langileen esanetan, ez dute oraindik enpresako zuzendaritzaren berririk izan.

LABUR

GOITBko bi teknikari etxez etxe ibiliko dira datorren astean

GOITBko seinalea ez da ondo iristen herriko hainbat kale edota etxetara. Hori horrela, eta hobetzeko asmoarekin, datorren astean, zehazki martitzenetik egubakoitzera bitartean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibako bi teknikari zuen etxeetatik pasatuko dira hainbat proba egiteko. Ahal bada, atarietako arduradunekin egon nahi dute. Arazoren bat izanez gero, telefono honetara deitu: 943792100. Eta Asierrengatik edo Edwitegatik galdetu.



MONIKA BELASTEGI

AEK-k, EHEk, Gazte Asanbladak eta Presoen Lagunak taldeek eratu zuten Txosna batzordea duela hiru urte.

PAZKOAK/ Arratsaldeetako giroa pizteko ahaleginean, 08:00etan itxiko dituzte txosnak

Txosna batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu jaietan

MONIKA BELASTEGI

Txosna batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Pazkoetarako. Jai parte hartzaileak bultzatu nahi ditu batzordeak, eta jaietako arratsaldeei bizitasun handiagoa eman. Hori dela eta, 08:00etan itxiko dituzte txosnak eta hainbat ekitaldi egongo dira arratsaldean.

Bost txosna jarriko dituzte Bideberriko gunean: Presoen Lagunak taldeak, Euskal Herrian Euskaraz taldeak, AEK-k, Batasunak, eta Txapa irratiak eta *Astindu* gaztetxeko fanzineak elkarrekin jarriko dituzte txosnak.

Duela hiru urte eratu zen Txosna batzordea eta orduko helburuarekin jarraitzen du: jai parte hartzaileagoak bultzatzea, hain justu ere. Hori horrela, jai egitarau propioa antolatu dute batzordeko kideek, eta arratsaldeko giroa pizteko ahalegin berezia egin dute, astelehenean prentsaurrekoan azaldu zuten: "Jaietan giroa, batez ere, gauez

egoten da, eta gure asmoa da arratsaldera ere giroa zabaltzea. Hori horrela, goizeko zortzietan itxiko ditugu txosnak, jendeak arratsaldeko ekitaldietan parte hartzeko asmoarekin". Horrez gain, egitaraua eurek antolatu duten arren, "aurrera begirako asmoa da jai egitaraua herritarrek anto-

latzea, herritarrak direlako parte hartzen dutenak".

Txosna batzordeak antolatu dituen ekitaldien artean, baltsajaisiera dago. Izena emateko tokiak: Pol-Pol, Arrano, AEK eta gaztetxea. Baltsa norberak egin behar du, eta argibide orriak tabernetan utzi dituzte.

Batzordearen egitaraua

Egubakoitza, 17

20:00: Kalejira, gaztetxetik txosnetaraino.

20:30: Irekiera: txalapartariak, bertsolariak, txosnaren igoera eta etxafuegoak.

23:00: Kontzertua: La secta, Meows eta Supercools.

Zapatua, 18

23:00: Kontzertua: Rock A. Hulas, Money suzuki eta Elevators.

Domeka, 19

18:30: Bertso-poteoa,

Iturriaga eta Irazurekin.

20:30: Txotx herrikoia.

22:00: Kontzertua: Goiko rock, PAM, Attake 77 eta Destruccion.

Astelehena, 20

19:00: Baltsajaisiera

22:00: Kontzertua: Betagarrri, Kuraia, Uko eta Basque Country.

Astelehena, 21

14:00: Herri bazkaria.

20:00: Elektrotuna.

23:00: Txosna erreketeta.

Beste hiru udaltzain kontratatu ditu Udalak

MONIKA BELASTEGI

Beste hiru udaltzain kontratatu ditu Bergarako Udalak. Uztaile-ra arte Arkauten ibiliko dira lanposturako beharrezkoa den formazio ikastaroa egiten. Horren ondoren, udaltzain lanari ekingo diote Bergaran.

Hiru udaltzain kontratatu ditu Bergarako Udalak: bi zarauztar eta lasartear bat, hain zuzen ere.

Bergarako herria handituz doa eta udaltzain gehiagoren beharra sumatu dute Udaleko arduraduniek. Gaur egun, hamabost udaltzain daude, eta beste hiru horiekin hamazazpi udal-

tzain egongo dira herrian; izan ere, lanean ari den udaltzainetako bat erretiratu egongo da.

Hiru udaltzain berriak uztailearen 13an hasiko dira lanean. Udalak dagoeneko kontratazioa eginda duen arren, Arkauten formazio ikastaroa egiten ari dira hiru gazteak, lanposturako beharrezkoa den ikastaroa; eta ikastaro hori amaitzean ekingo diote udaltzain jardunari.

Hiru lanpostu horietarako zazpi lagunek eman zuten izena, eta hainbat froga egin behar izan zituzten abendua eta urtarrila bitartean: euskarazko azterketa, teorikoa, praktikoa, fisikoa eta psikoteknikoa.



ARTXIBOA

Gaur egun, hamabost udaltzain daude eta uztailetik aurrera, hamazazpi egongo dira.

LABUR

Pertxa elkartean emakumeak bazkide izateko aukera onartu zuten ezohiko batzarrean

Joan den astea ezker, emakumezkoek ere Pertxa elkarteko bazkide izateko aukera izango dute. Halaxe erabaki zuten, behintzat, joan den astean egindako ezohiko batzarrean. Proposamenak kontrako boto gutxi batzuk izan zituen arren, aurrera egin du. Orain arte elkartera gizonetako bazkide batek lagunduta bakarrik sartu ahal ziren, eta sukaldea ere ezin zuten erabili. Aurten, zilarrezko etzeiak bete du Pertxa elkarteak, eta hogeita bost urteren ondoren emakumeek bazkide izateko aukera izango dute.

Agirrebeña

GAZTETXEA



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ELKARRIZKETA

ELI MORENO/SEXOLOGOA

"Gazteen ustez, mutil askorekin doan neska puta da eta mutila, kabroia"

MONIKA BELASTEGI

Eli Moreno sexologoa ligatzeko tekniken gaineko ikastaroa ematen ari da. Neska-mutiko gaztetxo-
ei zuzenduta dago, eta Udaleko Ongizate Sailak eta Jardunek antolatuta dute. Hurrengo saioa bihar, hilak 11, izango da.

Zertan oinarritzen da ikastaroa?

Helburua da ligatzerakoan parte hartzen duten askotariko faktoreak aztertzea; dauzkagun zailtasunak eta erraztasunak aztertzea; erabiltzen ditugun estrategiak aztertzea.

Ligatzen irakats daiteke?

Ligatzeko ez dago errezetarik. Baina harremanetan parte hartzen duten faktoreak identifikatzen baditugu, eta aztertu, posible da errazago harreman-tzea, lasaiago azaltzea desiratzin duguna edo nahi ez duguna. Harremanak izateko orduan dauzkagun estereotipoak eta ideia faltsuez hausnartzea eta horiek kentzea ere oso garrantzitsua da. Ligatzeko erak garaiekin batera aldatu egiten dira?

Gauzak ez dira askorik aldatu; gazteek eta helduek antzera ligatzen dugu. Orokorrean, gauean, jai giroan eta alkoholarekin... Horrek guztiak harremanak egitea erraztu egiten du, gazteek diotenez, ez daukazu lotsarik, animatua zaudete... Gazteen artean adinaren arabera ere desberdintasunak daude: 13-14 urtekoek oraindik ere *zelestina* erabiltzen dute; gero, harremanak poliki-poliki sortzen dira, gauza batek bestera eramaten du... Eurek dioten moduan, *sortu* egiten da.

Gizonezko ala emakumezko izan, badago desberdintasunik ligatzeko orduan?

Bai, oraindik ere bikote heterosexualetan mutilak dira neska-rengana joan behar direnak eta proposamena egin. Ez diot lehenengo pausoa mutilek ematen dutenik, betiko moduan nes-



ARTXIBOA

"Gauzak ez dira aldatu, gazte eta nagusiok berdin ligatzen dugu: gauez eta alkoholarekin"

kok lan dezente egiten dugu-eta atzetik, mutilak konturatzeko zerbait esan behar digutela, mutilen aurretik 11 aldiz pasatuz...

Baina oraindik ere, sakontzen duzunean, gazteek uste dute mutil askorekin doan neska *puta* dela eta, mutila, berriz, *kabroia*.

"Oraindik ere bikote heterosexualetan mutilak dira neska-rengana joan behar direnak"

Argi dago konnotazioak oso desberdinak direla.

Badago urrezko araurik ligatzeko orduan?

Zorionez bai: araurik ez egotea! Horrek aukera ematen du norbera den modukoa azaltzera eta gauzak nor bere erara egitea.



Martoko eta Zubiaurreko jaiak asteburuan

Asteburuan, Igokunde jaiak ospatuko dituzte Zubiaurre eta Martoko auzoetako bizilagunek. Zapatuan, 11:00etan, salda eta txorizoa egongo dira; 12:00etan, txikiteoa, eta 16:00etan, Mus Azkarreko Txapelketa. 17:30ean, umeendako kukañak, txokolate-jana eta buruhandiak izango dira, eta 23:00etan, erromeria. Domekan, 09:00etan, txokolate-jana eta txistulariak egongo dira, eta 09:30ean, San Migelera iguera eta han, meza. 12:30ean, jaitsiera izango da, eta 16:00etan, tute txapelketa.

LABUR

Pazkoetako herri bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko

Etzerat taldeak, Jardun euskara elkarteak, Xamatx dantza taldeak eta herriko koadrilek antolatuta dute. Bazkaria jaietako martitzénean izango da (maiatzak 21) eta txartelak toki hauetan daude salgai: Ariznoa, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eta Jardun elkarteetan. Txartelak eskuratzeko azken eguna maiatzaren 19a izango da, domeka. Maiatzaren 21eko egitarauari dagokionez, 13:00etan, Pol-Polen elkartuko dira, txikiteoa egiteko, eta bazkaria 14:30ean izango da, San Martin plazan. Bazkalostean jokoak egongo dira.

Gaztetxoan Arteko II. Olinpiadak antolatu ditu Jardun elkarteak maiatzan eta ekainean

Lau, bost eta seigarren mailako neska-mutikoei zuzenduta daude. Maiatzaren 25etik ekainaren 22ra arte izango dira, zapatu arratsaldeetan, eta hockey, errelebu, sukaldaritzak eta beste hainbat jokotan lehiatu beharko dira parte hartzaileak. Taldeak, gutxienez, zortzi lagunekoak izan beharko dira eta gehienez, 10ekoak. Horrez gain, taldeak izena izan beharko du eta koadrilaren blusa edo kolore bereko kamiseta. Izena Jardunen (kultura etxea) edo 943 76 36 61 telefonoan eman beharko da hilaren 14a baino lehen.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatzak
Txabierroak

Matxiategi 1. **BERGARA**
Tel. 943 76 39 53



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.



ZER EGIN LIGATZEKO?

Galdera horrexen erantzunaren bila dihardute hainbat gaztetxok, Eli Moreno sexologoaren laguntzarekin. Ikastaroa sexualitatearen eta ligatzeko tekniken gainekoa da. Jardunek antolatu du, Udaleko Ongizate Sailaren laguntzarekin. Apirilaren 27an izan zuten lehendabiziko saioa eta bihar, zapatua, izango dute bigarrena. Pazkuak gainean ditugunez, ligatzeko teknikaren batzuk ikastea ondo etorriko zaie. Ia, bada, ikastaroan ikasitakoak praktikara eramaten dituzten gaztetxo hauek! Kuadrillategiko dinamizatzaileak ere apunteak hartzeko prest joan ziren, koaderno, boligrafo eta guzti, baina ez zieten parte hartzen laga. Izan ere, gaztetxoendako da ikastaroa. Ia, bada, noiz antolatzen duten guztiondako horrelako ikastaro bat, ez zaigu eta gaizki etorriko!


KOLABORATZAILEEN BAZKARIA

Mizpirualdeko bizilagunendako bazkaria antolatzen du urtero Altzasu elkarteak, eta elkarteko kideekin batera, hainbat herritarrek kolaboratzen du bazkari horretan. Joan den zapatuan, maiatzak 4, bazkaria izan zuten kolaboratzaile lanetan ibiltzen diren lagunek Altzasun bertan. Hor ikusi ditzakegu argazkian Miguel Okina pintorea, Miguel Sagastume "Urkiko magoa" akordeoiarekin, Juan Luis Bilbao Altzasuko kidea, Luis Larrañaga *Kikio*, Jabier Mendizabal sukaldaria, eta Salva Olabarria eta Gerardo Mondragon abeslariak. Musika eta kantuak, behintzat, ez zitzaion falta izan honako koadrila honi!



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



**IRAEGI
ASEGURUAK**

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

BERGARARRAK MUNDUAN

IÑIGO GALLASTEGI

29 URTE / HARRERAGILEA / FUENGIROLA (MALAGA)

“Ez da erraza hemen euskalduna izatea; ia-ia ezkutatu egin behar duzu”

AINTZANE IRIZAR

Bi urte pasatxo egin zituen Ameriketako Estatu Batuetan bizi izaten. Eta orain, urtebete darama Fuengirolan, Malagan, bizi izaten.

“Ingelesa ikastea aitzakia hartu, eta ihesi joan nintzen Ameriketako Estatu Batuetara”, gogoratzen du Iñigok. Nahiko aspertuta ei zegoen, eta beste leku bat ikusi eta “bizitza ateratzera” joan zen. AEBetan, San Frantziskon bizi izan zen. “Izugarri gustatu zitzaidan hura, eta hantxe geratu nintzen”, azaldu digu.

Han ezagutu zuen orain bere emaztea dena, Carmen. San Frantziskon bertan ezkondu ziren eta handik Fuengirolara joan ziren bizi izatera: “Hemen etxea daukadalako etorri ginen hona”, diosku Iñigok. Eta hantxe bizi dira duela urtebetetik hona.

Automobilak alokatzen dituen enpresa baten egiten du lan orain Iñigok, Marbellan, Fuengirolatik 30 bat kilometrorra. Hiruzpalau hilabete daramatza han lanean. Oso gustura ei daude Fuengirolan bizi izaten, batez ere, hango klimatik. “Emaztea salvadorta-

rra da eta Euskal Herrian oso gaizki pasatzen du hotzarekin; hemengo klima, berriz, oso gustuko du emazteak”, azaldu digu Iñigok.

Gustura egon arren, ez ei da erraza han euskalduna izatea: “AEBetan oso ondo ikusten gaituzte euskaldunak, oso

“Hemengo klima gustuko dugu; emazteak, batez ere, salvadortarra da-eta”


ondo hartzen gaituzte; hemen, berriz, ia-ia ezkutatu egin behar duzu euskalduna zarela”, diosku Iñigok.

Batez ere, lagunena eta familiaren hutsunea nabaritzen ditu Iñigok, baina horrek badauka konponbidea: “Urtean behin joaten naiz Bergarara; lagunena eta familiaren txute bat hartzen dut, eta kito”.

Aurrera begira ez dute plan zehatzik, baina ez dute nahi toki baten gelditzerik: “Ikusi egin behar; baliteke El Salvadorrera joatea, edo AEBetara itzultzea berriro ere”.



MINGAINARITIRAKA



Jose Aranguren

PESAKO GIDARIXA IZANDAKUA

Zeiñek ez dau ezagutzen Jose? Oin dala bi urte jubilau zan; 66 urte dauzka, eta 37 urte egin dittu txofer lanian. Jose naparra da, baiña 19 urte zeuzkanetik bizi da Bergaran.

Noiz hasi ziñan txofer lanian?

Hogeita zazpi urte neuzkala hasi nitzan txofer La Vergaresan.

Ordutik hona zenbat Km egin dozu?
Kontuan hartzen badozu hillian 10.000 kilometro egitten giñuzela, ba, hortik kontuak etara. 37 urte egin dittut lanian, hortaz... kilometro mordua.

Ze ibilbide egin izan dozu?

Danerakuak: Iruñera bueltak, hemen inguruko ibilbidiak, biaje luziaguak be egin izan dittut...

Egin dozun biajerik luziena?

Andaluzian egon nitzan behin, ikaske-ta-bidaiaira jun zien ikasliekin.

Zure lanian ze zan gehixen gustatzen jatzuna?

Dana; neri, gaiñera, asko gustatzen jat konduzitzia. Oin be, edozein tokittara jungo nitzake txofer; gustau egitten jat.

Eta gutxien?

Ba, ez dakit ze esan be... Oso lan gustokua euki dot nik.

Txoferrok jenio txar famia daukaue; egixa da hori?

Bai, badare jenixo txarra dauken txofer-rrak; nik uste dot euren gustokua ez dan lana daukelako diela holakuak.

Ze afiziño dauzkazu?

Danetik egitten dot: bizikletan ibiltzen naiz, Urkulu aldera juten naiz, pelotan jokatzia gustatzen jat, eta etxeko lane-tan be laguntzen dot.

Amets bat?

Loterixia tokatzia.

Ze egingo ziñuke?

Biajau eta biajau... Mundu osuan zihar biajauko neuke.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Joseba Moñux

PARIS / 1989ko apirilean

Elementalean ikasten ari ginen hainbat ikasle joan ginen Parisera orain dela hamahiru urte. Izan ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat ikas-tetek Pariserako tren bat antolatzen zuten, eta nahi zuenak izena ematen zuen bidaia horretarako. Eta horrelaxe egin genuen bidaia hura.

Hendaian hartu genuen tren, eta Parisera abiatu ginen. Bergaratik 30 bat ikasle joan ginen, eta irakasle batzuk ere joan ziren. Bagoiak logela txikien modura prestatuta zeuden, eta Parisen pasatu genituen lau egunetan, hantxe egin genuen lo, ohatzeetan edo lite-retan. Sei bat ohatze egongo zen bagoi bakoitzean.

Hogeita hamar bat lagun joan ginen arren, gu sei bat laguneko taldetxo bat ibili ginen Parisen. Goizero bederatzia aldera irteten ginen trenetik eta gauerdira arte ez ginen itzultzen. Ogia, gazta, urdaiazpikoa, garagardo batzuk eta horrelakoak erosten genituen goizean eta egun pasa irteten ginen Paris ikustera. Ez geneukan ibilbide jakinik; kale-etan barrena ibiltzen ginen, ea zer topatzen genuen. Denetarik ikusi genuen Parisen, bai eta toki turistiko edo tipikoak ere: Eiffel dorrea eta hainbat museo, esate baterako. Goizean erositakoekin egiten genuen bazkaria, hirian topatzen genuen parkeren baten; eta bazkalostean, berriz, lo-kuluxkaren bat egin, eta berriro hiria ikustera irteten ginen.

Hiri ederra iruditu zitzaidan Paris. Merezi du hura ikustea. Dena dela, bidaia haren gauzarik onena gure arteko giroa izan zen, duda barik; elkartu ginen sei lagunok egun osoa pasatzen genuen Parisen kalerik kale, giro jatorrean. Horixe da, hain zuzen ere, bidaia hartatik gordezten dudana oroitzen politikena.

AINTZANE IRIZAR



Lagun taldea, Parisko parke baten atseden hartzen.



“Logela bezala prestatutako bagoietan egiten genuen lo”

“Bidaia haren gauzarik onena gure arteko giroa izan zen”



PANA DE ROKUA
IJAETXEAL

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

IBARGYREN
PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79



Argazkian, 1961ean Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Bergarako taldea, Beasaingo Loinaz futbol zelaian.

URREZKO EZTEIAK

Bergara KEko zuzendaritza, 50. urteurreneko ekitaldiak prestatzen

Maiatzaren 25ean, futbolaren gaineko mahai-ingurua egingo dute udaletxean

EDU MENDIBIL

Bergara KEren sorreraren urrezko ezteiak beteko dira aurten. Hori dela eta, Zuzendaritza batzordeak ospakizunak gertatzen dihardu. Ekitaldi gehienak udazken aldera izango dira, baina maiatzaren 25ean, futbolaren gaineko mahai-ingurua egingo dute.

Esan bezala, urteurreneko lehenengo ekitaldia maiatzaren 25ean izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Inaki De Mujika Herri Irratiko esataria ibiliko da moderatzaile lanean eta hizlariak honako hauek izango dira: Rayo Vallecana taldeko atezain Imanol Etxeberria, Realeko jokalaririk ohi Agustin Arantzabal *Gaztelu*, Realeko prestatzaile fisiko Julen Masach, Realeko jokalaririk Agustin Arantzabal eta Jesus Irizar *Pardina* eta Xabier Zabaleta jokalaririk ohiak.

1952an Bergara Kirol Elkartea sortu zenetik hona, futbolaz gain, sail ugari izan ditu taldeak: atletismoa, xakea, saskibaloia, eskubaloia, txirrindularitza, areto futbola, igeriketa eta pilota. Inigo Zaitegi Bergara KEko presidentearen esanetan, guztiei egingo zaie leku 50. urteurreneko ospakizunetan: "Ekitaldi gehienak irailetik aurrera izango dira eta klubean izandako sail bakoi-tzaren gainean zerbait egin nahi dugu. Oraindik ez dugu ezer ziurtatuta, baina herriko elkarteentz laguntzarekin mahai-inguruak eta afariak egin nahi ditugu. Eta

logikoa denez, kirol jarduerak berebiziko protagonismoa izango dute. Herritarrei zuzendutako partidu interesgarriak antolatu nahi ditugu. Bestalde, pilotaren eta txirrindularitzaren gaineko mahai-inguruak udaletxean egingo asmoa dugu, kirolari ospetsuak ekartzeko asmoa dugu-eta".

LIBURUA, IRAILEAN KALEAN

Elkartearen historia batuko duen liburua lantzeko, batzorde bat gogor ibili da lanean azken hilabeteotan. Liburu horretan 300 bat argazki jasoko dituzte eta Juan Luis Bikuña kazetariak idatzitako testuak ere izango ditu, Liburu San Martinen ostean aurkeztuko dute. Inigo Zaitegiren hitzetan, "liburu aberatsa izango da eta liburuarekin batera CD bat ere jarriko dugu salgai, liburuan ezin izan dugulako jaso batu dugun material guztia. Doku-

mentazio lan ikaragarria egin dugu eta nik uste dut etxean gordetzeko moduko liburu interesgarria izango dela". Liburuaren inprentan dago dagoeneko eta Zaitegiren esanetan, 1.000 ale kaleratuko dira hasiera baten. Prezioari dagokionez, 18 euro ingurukoa izango dela aurreratu digu Bergara Kirol Elkarteko presidentek. Liburuaren proiektua aurrera ateratzeko batzordean Aitor Eraña, Juan Luis Bikuña, Luis Untzurruntzaga eta Inigo Zaitegi bera ibili dira lanean; eta, horrez gain, beste hainbat batzorde osatu dituzte ospakizunen egitarau zabala prestatzeko.

Era berean, taldetik igarotako guztiak (zuzendaritzakoak, jokalariek, langileak, eta abar) kontuan izango ditu taldeak 50. urteurrenean. Hori dela eta, udazken aldera herri bazkaria egiteko ideia aztertzen dihardute.

Reala, udan Agorrosinen

Bergara KEren urrezko ezteiak ospatzeko goi mailako futbol partidu bat antolatuko du zuzendaritzak. Dagoeneko Realak baietza eman dio Bergarari, eta, hortaz, txuri-urdinak Agorrosinen izango ditugu. Hala ere, aurrean izango duen taldea zehazteke dago oraindik.

Mahoneroen zuzendaritzak Realaren eta Athleticen arteko euskal derbia lortu nahi zuen, baina Athleticetik ezetza eman dio. Gauzak horrela, baliteke azkenean Alaves etortzea Bergarara. Partidurako egun zehatzik ez dago. Talde horiek aurrendoraldiko partiduak zehazten dituztenean jakingo da egun zehatza, baina uztailean edo abuztuan izango da, ziurrenik.

Bergara-Iraurgi gazteen saskibaloia partidua domekan

E.M.

Bergara KEko gazte mailako saskibaloia Iraurgiren aurka jokatu du domekan, 12:30ean, kiroldegian. Jokin Pérez eta Ramon Condek zuzentzen duten taldea ondo dabil ligan: mahoneroak bigarrenak ditugu sailkapenean, Azpeitiko taldearen atzetik. Bergararen helburua bigarren postuari eustea izango da, liderrarekiko aldea handiegia da-eta. Eta hain zuzen ere, datorren aste bukaeran azpeitiarrei egingo diete bisita.

Bestalde, senior taldeak igotera ligaxkako azken partidua galdu egin zuen zapatuan Goierri-

ren aurka, kiroldegian; 60-77 izan zen emaitza. Bergarak agur esan zion mailaz igotzeko aukerari. David Urbinaren esanetan, "ligaxkan ondo hasi ginen, baina lau partidu jarraian galdu ondoren, behera egin genuen. Lesioekin ere zorte txarra izan dugu denboraldiaren amaieran".

KADETEEN DEIALDIA

Bestalde, hurrengo denboraldian kadete mailako bi talde osatu nahi ditu Saskibaloia Sailak. Hori dela eta, 1987an eta 1988an jaiotako gaztetxoek dei egiten diete astelehenean, hilaren 13an, 18:30ean, kiroldegian egingo duten entrenamendura joateko.



Gazte mailako taldeak bigarren postuan amai dezake liga.

Senior eskubaloia taldeak Bimila hartuko du zapatuan


E.M.

Lidertzari eutsi nahirik, Bergara KEko senior eskubaloia taldeak Gasteizko Bimila taldea hartuko du zapatuan, 17:30ean, kiroldegian. Aurreko jardunaldian, Edu Orgazen taldeak 19-20 irabazi zion Legazpiko Egialde taldeari. Bergararrak liderrak dira. Puntu bateko aldea ateratzen diete Sestao eta Egialde taldeei eta bi puntu Deustu-Loiolari. Igoera

ligaxka bukatzeko hiru partidu besterik ez da geratzen.

MUSKIZERA JOATEKO AUTOBUSA

Datorren zapatuan, hilaren 18an, Bergarak Muskizen jokatu du eta hara joateko autobusa antolatu nahi dute Eskubaloia Sailekoek. Irteera 16:30ak aldera izango da. Partidua, berriz, 18:00etan jokatu da, ziurrenik. Interesatuek herriko hainbat tabernatan eman dezakete izena.



Etxeko jokalariek zaleen laguntza beharrezkoa izango dute bihar.

Bergara-Zarautz gaur, Herri Arteko Pilota Txapelketaren barruan

E.M.

Ataun taldeari 3-0 irabazi eta gero, Bergarako Pilota Sailak Zarautzen aurka jokatu du gaur, Udal Pilotalekuan, 19:30etik aurrera. Bestalde, Bergara Hiria Txapelketan, amateurretan, Ander Muguruza bergarra finalerdietarako sailkatu zen martitzenean.

Muguruzak eta Argotek 22-9 irabazi zieten martitzenean Azpirozi eta Iriarteri. Hortaz, amateurren mailan herriko bi ordezkari izango ditugu finalerdietan, Igor Gutiérrezrek apirilaren 23an lortu zuen-eta sailkapena. Finalerdietan, Eguzkizak eta Gutiérrezrek Huiziren eta Laskurainen aurka jokatu dute datorren ekainaren 4an eta Muguruzak eta Argotek, berriz, maiatzaren 28ko partiduko irabazleen aurka jokatu dute finalerdia, ekainaren 11n, hain zuzen ere.

Promes mailan, Iker Azagirre bergararrak ez zuen aurrera egiterik izan. Ikerrek eta Errartek galdu egin zuten Arraztoaren eta Lagosen aurka, 9-22.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Duela hamabost egun Ataunen gertatu zen moduan, Bergarak 3-0



Gutiérrez eta Muguruza, Reyes Azkotia entrenatzailearekin.


irabazi zion Atauni egubakoitzean, Herri Arteko Txapelketako itzulerako partiduetan, Bergaran. Kadete mailan, Jon Larrañagak eta Ibai Altunak 22-13 irabazi zioten Ataungo bikoteari; gazte mailan Beñat Iñarra eta Asier Larrañaga 22-9 nagusitu zitzaizen euren aurkariei; eta, seniorretan, azkenik, Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek 22-8 irabazi zuten.

Gaur, zarautzarren aurka arituko dira bergararrak. Reyes

Azkoitia entrenatzailearen esanetan, "badakigu senior mailako bikotea ona dutela, baina hortik aurrera ez dakigu zer-nolako taldea den. Ea hemen, etxean, emaitza ona lortzen dugun".

Bestalde, Amaia Azurmendik irabazi zuen Pilota Saileko zozketako 2. saria: lau lagunendako afaria Infernukuan eta 200 euro. Lehen sariaren jabea (4.766 zenbakia) agertzeke dago oraindik.

FOTOKIROLA



Gimnastak, eskola arteko finalera

Irati Arteagak eta Sarai Gallegok Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketako finala izango dute bihar Arrasaten, infantil A mailan. Era berean, hurrengo zapatuan, hilaren 18an, Zarautzen izango diren finaletan Oihane Agirre eta Saioa Ugarte-buru (alebin mailan), Eider Carrasco (infantil B) eta Uxue Arregi eta Maialen Toledo (kadete mailan) gimnastak izango dira. Taldekako finaletan, Ariznoako alebin B taldeaz gain, infantil B eta kadete B taldeak ere Zarautzeko finalean izango dira, kanporaketan maila ona azaldu eta gero. /ARGAZKIA: ARTXIBOA.

Hamazazpi bikote Angiozarren, Binakako Frontenis Txapelketan

E.M.

Joan den zapatuan, Bergarako Binakako V. Frontenis Txapelketa hasi zen. Hala, hiru multzotan banatutako 17 bikote izango dira lehian eta txapelketa hori Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da. Uztailaren 6ra bitartean, partidua izango dira Angiozarren.

Bihar, zapatua, frontenis partidua jokatu ditzute Angiozarren Arbiaska pilotalekuan, 09:30etik aurrera. Arratsaldez beste hiru partidu jokatu ditzute, 16:00etan hasita. Datorren zapatuan, berriz, Pazkoak direla eta, atsedean hartuko dute.

Begarako partaidetzari dago-kionez, ondoko bikoteak arituko dira: Alejo García eta Carmelo Barcala, Igor eta Joseba Cusi, Patxi Vallejos eta Xabier Albusua,



Argazkian, Frontenis Txapelketako aurreko aldi baten saritutako bikoteak.

Iban eta Fernando Agirrebeña, Xabier Quintana eta Asier Untzurruntzaga, eta Aitor Torre eta Aitor Macho.

Hiru multzo osatu ditzute

antolatzaileek eta multzo bakoitzetik, bi bikote pasatuko dira zuzenean final-laurdenetara. Finalerdiak ekainaren 29an eta finala uztailaren 6an izango dira.

FUTBITO TXAPELKETA

Artusamak eta Bar Ugarte taldeek Ligako finala jokatu dute zapatuan

Bihar, zapatua, Artusamak eta Bar Ugarte taldeek Ligako finala jokatu dute Labegarrietako kiroldegian, 19:00etatik aurrera. Artusamak dugu txapelketa eskuratzeko faboritua, kopako finalera ere iritsi da-eta. Finalerdian Kanpazar taldeari 4-3 nagusitu zitzaion Artusamak taldea. Kopako beste finalerdia Errotagain eta A Ze Flaxa taldeen artekoa izango da. Partidua domekan, hilaren 12an, jokatu dute, 11:00etan.

FUTBOLA

Preferente mailako Bergara taldeak Berioaren aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen

Begarako preferente taldeak Berio hartuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Bergara bigarren itzuli bikaina egiten ari da eta azken jardunaldian Mundarrori 0-1 nagusitu zitzaion, Oskar Maiztegik egindako golari esker. Mahoneroak sailkapeneko seigarren postuan daude, 58 punturekin.

Bestalde, ohorezko mailako gazte taldeak Hondarribiaren aurka jokatu du zapatuan Ipintzan, 18:30ean.

IGERIKETA

Lehiaketak direla eta, Agorrosingo igerilekuak itxita izango dira zapatu goizean

Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, igerilekuko bainu eremua itxita egongo da zapatuan, maiatzaren 11n, 08:45etik 13:00etara, bertan igeriketa lehiaketa egin behar dute-eta. Igerilekuko erabiltzaileei eragozpenak barkatzeko eskatu die Kirol Zerbitzuak.

Babeslea  www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Egun osoko egitaraua du jaialdiak, eta lehengo erromeriak berreskuratzea eta dantzari euskal folklorean dagokion lekua ematea du helburu

Jalgi Hadi Dantzara erromeriak lehenagoko jai giroa berreskuratuko du bihar, zapatua

MONIKA BELASTEGI

Euskal Dantzarien Biltzarrak, Abarka elkarteak eta Moises Azpiazu dantza taldeak antolatu dute Jalgi Hadi Dantzara, Xamatx dantza taldea eta Udalaren laguntzarekin. Egun osoko jaialdia izango da, eta puntako trikitalariak etorriko dira herrira.

Moises Azpiazu dantza taldeko kide Noemi Larrañagaren esanetan, kalean dantza egiteko ohitura eta, era berean, erromeriak berreskuratzea du helburu Jalgi Hadi Dantzara erromeriak: "Gaur egun, jai eta dantza tabernetan egiten da. Erromeria erraldoi horrekin lehengo kaleko jai giroa berreskuratzeke urratsak eman nahi ditugu", esan du Noemik.

Herriko plaza dantzari bete-tzea nahi dute antolatzaileek, eta, gure nagusiagoek egiten zuten moduan, fandangoa eta arin-arina dantzatzea, besteak beste. Horretarako, puntako trikitalariak etorriko dira bihar herrira.

Aurrekoa bezain garrantzitsua den beste helburu bat ere badu biharko jaialdiak: "Dantzari, euskal folkloreaken barruan dagokion lekua ematea", Noemi Larrañagak azaldu duenez.

Biharko Euskal Herrian egiten den lehenengo erromeria nazionala izango da, eta hemendik aurrera bi urtean behineko maiztasunarekin antolatuko du Euskal Dantzarien Biltzarrak, urte pareetan. Aldi bakoitzeko, gainera, probintzia baten egingo dute; 2004koa Bizkaian. Dena dela, erromeriak arrakasta baldin badauka, datorren urtean antzerakoa egiteko ideia ez du baztertu Noemik, nahiz eta beste izen bat izan beharko duen.



Antolatzaileek ahalik eta jende gehien animatzea nahi dute plazan dantza egitera.

ARTXIBOA

Antzinako Euskal Jantzien erakusketa

Erromeriarekin batera, Abarka taldeak Antzinako Euskal Jantzien erakusketa ere antolatu du. Gaur, egubakoitza, irekiko dute, eta Udaleko osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai maiatzaren 21a arte.

Erakusketan Euskal Herri osoko hogeiren bat jantzi egongo dira, gizon zein emakumezkoenak, eta denak XIX. mende bukaera eta XX. mende hasierako jantzien erreproduzioak dira. Ramon García jantzigile erreteriarrek egindako doku-

mentazio lanaren fruitu dira jantziok: garai hartako argazki zein jantzien patrietatik ateratakoak. Lanerako eta kalerako erabiltzen zituzten jantziak egongo dira.

Ikusiko dugunez, gaur egungo baserri-tar jantzi tantoduna beranduagoko asmakizuna da, eta gure arbasoak oso ausartak ziren jantzteko orduan: kolore askoko jantziak erabiltzen zituzten gure arbasoek, eta estanpatua ere zabala izaten zen.

DANTZA TXAPELKETAK, 25 URTE

Aurten, 25 urte beteko ditu Moises Azpiazu dantza taldeak eta Abarka elkarteak antolatzen duten bikote gazteendako Euskadiko Dantza Txapelketak. Urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, zerbait "ezberdina eta potoloa antolatu nahi genuen", diosku Noemik. Hori horrela, Euskal Dantzarien Biltzarrarekin harremanetan jarri, eta Jalgi Hadi Dantzara jaialdia antolatu dute.

EGITARAU ZABALA

Ekitaldi sorta zabala du jaialdiak. Goizeko hamaiketan ekingo diote egitarauari: dantzazale, dantzari eta musikariei harrera egingo diete; eta gero, kalejira egongo da bi taldetan banatuta. Jarraian, San Martin plazan, Euskal Herri osoko dantzak egin eta ikusi ahal izango dira, baina batez ere, dantza suelta, bikotek zein banaka. 13:00etan, dantza ikuskizuna egongo da, eta horren ondoren, 14:30ean, herri bazkaria.

Bazkalostean, erromeria izango da 18:00etan, trikitiak, albokak eta txarangak lagunduta. Trikitalariak hauek izango dira: Ansozregi eta Larrañaga, Elortza anaiak, Epelde eta Larrañaga, Iturbe eta Irastortza eta Zabale eta Alkorta neba-arrebak. Albokaria, berriz, Juan Mari Beltran izango da, eta animatzaileak, Patxi eta Batbiru taldea.

Azkenik, goizaldera arteko dantzaldia egongo da Eztanda eta Trikizio taldeekin.

ERAKUSKETAK

Antzinako Euskal Jantzien erakusketaz gain, argazki erakusketa ere egongo da osoko bilkuren aretoan. Moises Azpiazu taldeko dantzarien eta taldearen historia batzen dute argazkiok.

Debagoieneko bost talde domekan, X. Dantzari Egunean

MONIKA BELASTEGI

Etzi, domeka, X. Dantzari Eguna ospatuko dute. Xamatx dantza taldeak antolatu du eta, talde horrekin batera, Antzuolako, Arrasateko eta Oñatiko dantza taldeek hartuko dute parte Dantzari Egunean. Goiz eta arratsalde hainbat ekitaldi izango dira.

Debagoieneko lau herritako bost taldek hartuko dute parte oraingo domekan X. Dantzari Egunean: Antzuolako Oin Arin dantza taldeak, Arrasateko Arrostitz

eta Lore Gazteak dantza taldeek, Oñatiko Oñatz taldeak eta Bergarako Xamatx dantza taldeak, hain justu ere.

DANTZA TALDEEN ETA TXISTULARIEN ALARDEA

Goizeko hamar eta erdietan hasiko dira ekitaldiak; ordu horretan, talde bakoitzeko txistulariek diena joko dute herriko kaleetan barrena. Gero, 11:00etan, dantza talde bakoitzak hainbat dantza saio egingo ditu herriko kaleetan, eta 12:30ean, guztiak San Martin plazan elkartuko dira. Han, dantza alardea egingo dute bost dan-

tza taldeek eta bakoitzak bere dantza ederrenak egingo ditu hurreratzen diren ikusleendako.

13:45ean, dantzarien alardearen ondoren, txistulariek ere alardea egingo dute San Martin plazan, eta horrekin amaiera eman goizeko ekitaldiei.

Arratsaldean, aurrera jarraituko dute X. Dantzari Eguneko ekitaldiek; 18:00etan, bost dantza taldeek alardea egingo dute berriro ere San Martin plazan, eta 19:30ean, Luhartz taldearekin dantzaldia hasiko da. Horren guztia ondoren, 21:00etan, amaiera emango zaio jaialdiari.



Goizean eta arratsaldean alardea egingo dute dantzariak San Martin plazan.

ARTXIBOA

E, TXO!

GUREGAIK/ UDALEKUAK

Gaztetxoak ere joaten dira udalekuetara

AINZANE IRIZAR

Umeendako ez ezik, hamalau eta hamazazpi urte bitarteko gaztetxoendako ere antolatzen ditu udalekuak Gipuzkoako Foru Aldundiak. Maiatzaren 14an amaituko da udalekuetarako izena emateko epea.

Aukera zabala eskaintzen die Gipuzkoako Diputazioak hamalau eta hamazazpi urte bitarteko

neska-mutilei, hala nola: ingelesa edo frantsesa ikasteko udalekuak, Espainiako hainbat aterpetetan egonaldiak, era guztietako kirolak egiteko udalekuak edo bertsolaritza praktikatzeko udaleku bereziak.

Horrela argi geratzen da udalekuak ez direla umeen kontua bakarrik; gazteek ere badute zer egin, zer ikasi eta zertaz gozatu, eta, bide batez, beste gazte batzuk ezagutzeko aukerarekin.

Horietakoren baten parte har-

tu nahi izanez gero, oraintxe eman behar duzue izena, maiatzaren 14a baino lehen, hain zuzen ere. Lehenengo izenematea izango da oraingoa, eta zozketa bidez erabakiko dute zeintzuk joango diren udalekuetara. Bi bide daude izena emateko: bata, Interneteko helbide honetan: www.gipuzkoa.net/oporraldi; eta bestetik, Bergarako Gazte Informazio Gunera joan zaitezke, eta hantxe emango dizkizute izena emateko eskaera orriak. Eguenetan

eta egubakoitzetan 16:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta zapatuetan, berriz, 09:30etik 13:30era. Eta gainerako egunetan, kultura etxean bertan eman go dizuete informazioa.

Esan bezala, izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute; maiatzaren 22an egingo dute zozketa hori. Zozketan udalekuetarako plaza eskuratuz gero, maiatzaren 27tik ekainaren 3ra bitartean behin betiko izenematea egin beharko duzue.

ZAPATUAN, KONTZERTUA
Bihar, zapatua, 22:30etik aurrera, bi talderen kontzertua izango dugu gaztetxean: Des-Kontrol eta Enboscada taldeek, hain zuzen ere, eskainiko digute kontzertu hori.

KUADRILLATEGI

Duela bi aste hasitako Sexualitate eta Ligatzeko Tekniken ikastaroarekin jarraituko dute. Goizeko bederatzi eta erdietan izango da, kultura etxean.

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Álvarez



opari zoragarriak eramán itzazu

oakley metala:
oakley giltzatakako eksklusiboa opari

oakley pasta:
oakley pegatina eksklusiboak opari

eta gainera...

oakley erloju baten zozketan sartuko zara

OAKLEY

esklusiban zuretzat

MULTIOPTICAS
beti zurekin

- BERGARA**
Tel. 943 76 15 75
- ARRASATE**
Tel. 943 79 29 95
- ORDIZIA**
Tel. 943 88 99 88
- EIBAR**
Tel. 943 20 05 22
- ERRETERIA**
Tel. 943 51 78 11

ZAHARREN ETXETIK

Hamabi emakumek dihardute San Joxepe elkarteak antolatu duen Yoga ikastaroan


EDU MENDIBIL

Zazpigarren urtez, Yoga ikastaroa antolatu dute aurten San Joxepe elkarteak. Hamabi emakumek dihardute Jose Luis Armendia irakaslearen aginduetara. Eskolak San Juanak bitartean izango dituzte.

Jose Luis Armendia arrasa-tearrak 20 urte inguru daramatza yoga eskolak ematen Bergaran. Orain dela zazpi urtetik hona Jose Luis da San Joxepen antolatzen duten ikastaroko arduraduna. Urrian-ekin zioten aurtengo ikastaroari. Esan bezala, 12 emakume ari dira, eta eskolak astelehenetan eta eguaztenetan izaten dituzte, 11:00etatik 12:30era. San Joxepen antolatzen dituzten beste hainbat jarduerarekin gertatzen den moduan, gehienak emakumeak dira Yoga ikastaroan. Armendiaren esanetan, "gizonezkoek beste gauza batzuk egin nahi izaten dute, fisikoagoak, behar bada, indarrezkoak; eta emakumeek, aldiz, sentsibilitate

handiagoa azaltzen dute. Hori izan daiteke ikasle guztiak emakumeak izateko arrazoi bat".

Inoiz ez da berandu yoga egiten hasteko: "Ikastaroan ari diren gehienak aurreko urteetan nirekin ibilitakoak dira. Asko hasi dira 65 urtetik aurrera, eta beste ikastaroetan egiten dituzten ariketa berberak egiteko gauza dira. Hori bai, erritmo lasaiagoan ibiltzen gara San Joxepeko ikastaroan", dio Armendiak. Erlaxazioa lortzeko ariketak, arnaske-ta hobetzekoak edo bizkarreko arazoendako aproposak direnak egiten dituzte. Armendiaren hitzetan, "yoga egitea ez da gogorra. Malgutasunaren eta indarraren arteko oreka egiten dugu eta, besteak beste, artikulazioak eta giharrak lantzen dira yoga-rekin. Norberaren mugak onartu ondoren, hobetzeko urratsak ematen saiatzen gara, muga horiek, ahal den neurrian, gutxitzeko. Ikasleek behin baino gehiagotan komentatzen didate egunetik egunera hobeto dabiltzala, yoga egin ostean ondo sentitzen direla, eta pozgarria da hori".




Yoga eskolak astelehenetan eta eguaztenetan izaten dira San Joxepe elkarteak.

SAN JOXEPEKO IRTEERA EGUAZTENEAN San Joxepe elkarteak maiatzaren 15erako irteera iragarri du. Eguaztenean, Igeldotik Oriora

oinez joango dira, eta bazkaria Orioko kanpinean egingo dute. Bergaratik 09:00etan irtengo da autobusa. Interesatuak San Joxe-

pen bertan eman dezakete izena. Bidaiaren eta bazkariaren prezioa 15 euro izango da. Argibideak, 943 76 30 09 telefono zenbakian.



Latexeko burukoak



'Aluminium' ohe artikulatuak



Habi-ohea

ONDO LO EGIN!

ESKAINZA BEREZIA
Koltxoia erosteagatik
koltxoia estaltzeko opari



Latexeko koltxoiak



Oinarri tapizatua



Era guztietako koltxoiak



Kanape erainsgarria

ederTu

Zatoz Masterreka 9ko
erakustokira

Barrenkalea 23. Tel. 943 76 29 65

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZ/IBAR

Bi atari hauek elkarren ondoan daude. Zein kaletan?
Eta zein bi plaza ditu kale horrek mutur bakoitzean?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Erromeroa

Rosmarinus officinalis

MAITANE ARIZABALETA

Bi metro har dezakeen zuhaixka adarkatua. Labiatuen familiako zuhaitza. Adarrak zuzenak, igokariak eta azal gris batekin estaliak daude; hostoak, aldiz, larrukarak, linearrak, berde lustredunak gainaldetik eta zuri tomentudunak azpialdetik. Udaberrian loratzen da eta loreak urdin argiak, arrosak edo zuriak dira, kaliza ezquila formakoak, eta urte osoan barrena agertzen dira.

Eskualde mediterraniarrean arto osoan dago hedatuta eta sastrakadi lehor eta eguzkitsuetan bizi ohi da, landare termofiloa da-eta. Bergaran, ordea, landare apaingarri gisa aurki dezakegu lorategietan, baita baratz eta etxe inguruetan ere, bere lore, usain eta propietate sendagarrietatik landatua. Usain berezkoa du erromeroak.

Fitoterapiari dagokionez, batik bat, hostoak eta loreak erabiltzen dira. Landare estimulatzailea izateaz gain, karminatiboa, tentsioa jaitsi, eta zirkulazioa hobetzen du. Bestalde, beste gaixotasun batzuei (hezueria edo gota delakoa, erreuma, eta beste hainbati) aurre egiten laguntzen dio.

“Landare estimulatzailea izateaz gain, tentsioa jaitsi eta zirkulazioa hobetzen du”



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1. Martoko eta Zubiurreko jaiak izango dira aste bukaeran? Ze jai ospatzen dituzte?
A/ Igokunde jaiak.
B/ San Zeledonio jaiak.
C/ Kofraixak.
2. Nork prestatu du udaletxean ikusgai dagoen Antzinako Euskal Jantzien erakusketa?
A/ Moises Azpiazu dantza taldeak.
B/ Abarka taldeak.
C/ Xamatx dantza taldeak.
3. Zein kazetari izango da BKEK antolatu duen lehen mahai-inguruko moderatzailea?
A/ Pedro Mari Goikoetxea.
B/ Iñaki De Mujika.
C/ Juan Luis Bikuña.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ERIK IÑARRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Erik!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkia / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Cojonudos zainzuriak

13-16 zainzuri, 660 gr.

2,40€

399 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68





BERGARA
Ander Uriarte
Maiatzaren 10ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Marije.



BERGARA
Andoni Etxezarreta
Maiatzaren 10ean 6 urte.
Zorionak! Familiakoak
eta Espoloiko koadrila.



BERGARA
Andoni Mujika
Maiatzaren 7an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Axier Mujika
Maiatzaren 15ean 10
urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Barruso
Maiatzaren 12an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eloy Simon Blazquez
Maiatzaren 10ean
urtebete. Urte askotara-
ko! Amama eta izeba.



BERGARA
Uxue Agirre
Maiatzaren 8an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Lasa
Maiatzaren 11n 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Julen Otaegi
Maiatzaren 8an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nekane Eskibel
Maiatzaren 13an 39
urte. Urte askotarako!
Maitane eta Alberto.



BERGARA
Aritz Maiza
Maiatzaren 11n 2 urte.
Urte askotarako!
Pedro Jose eta Jennifer.



BERGARA
Fran Rejano
Maiatzaren 7an
urtebetetzea. Zorionak
tio! Markel eta Marta.



BERGARA
Maite Elortza
Maiatzaren 14an 8 urte.
Urte askotarako!
Josu eta etxekoak.



ANTZUOLA
Aritz Etxabe
Maiatzaren 11n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Aguilu
Maiatzaren 10ean 5 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Maider, Gorka eta Josu.

BABESLEA

Raizabal

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20-22
Tel. 943 76 12 19

**Urtebetetze
tarta**
zuk nahi duzun
**argazkiarekin
eta formarekin!**

Eta agur-afarietarako tartak

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



Bertan egotea bezala!

Pazkuetako saio bereziak GOITBn

XELEBERRI

- Asteartea, maiatzak 21, 20:45ean

DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA

- Asteazkena, maiatzak 22, 20:30ean

INFORMATIBOA BERGARATIK

- Martitzena, maiatzak 21, 14:00etan

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 10a / 112. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Zapatuan palako finala jokatuko duten lau bikoteetatik, hiru iazko finalean izan ziren

AINZANE IRIZAR

Lehen mailan, Mansok eta Iturbek Azkarateren eta Jauregiren aurka jokatu dute. Bigarren mailako finala, berriz, Biteri aita-semeek Azkarateren eta Rodríguezen aurka jokatu dute. Bihar, zapatua, jokatu dituzte finalok, 08:30etik aurrera.

Bihar, zapatua, bukatuko da Olalde elkarteak urtero antolatzen duen Herri Mailako Paleta Txapelketa. Otsail bukaeran egin zuten txapelketa horretan parte hartzeko deialdia, eta hamabi bikote eman zuten izena, guztira; maila bakoitzean sei bikote ibili dira norgehiagoka.

Martxoaren 23an eman zitzaion hasiera Paleta Txapelketari. Ordutik hona, zapatuero jokatu dituzte partiduak. Azkenak, joan den zapatuan, maiatzaren 4an. Goizean finalerdietako lau partiduak jokatu zituzten, maila bakoitzeko bi partidu, hain zuzen ere.

Lehenengo mailan, Arbuluk eta Zabalok 27-30 galdu zuten Mansoren eta Iturberen aurka; eta lehenengo mailako beste partiduan, berriz, Azkarate eta Jauregi 30-17 nagusitu zitzaizen Toledori eta Peñalbari.

Txapelketako bigarren mailan, bestalde, Biteri aita-semeek 30-17 irabazi zieten Peñalbari eta Seguroleari; eta Azkaratek eta Rodríguezek, berriz, 30-14 irabazi zieten Arregiri eta Gezalagari.

Gauzak horrela, erabakita geratu zen zein bikoteek jokatuko dituzten bihar, zapatua, Paleta Txapelketako bi mailako finalak: lehen mailako finalean Iker Mansok eta Ruben Iturbek Oskar Azkarate eta Tomas Jauregi izango dituzte aurrez aurre; eta txapelketako bigarren mailako finalari dagokionez, bestalde, Aitor Azkaratek eta Andoni Rodríguezek Antton eta Jon Gurutz Biteri aita-semeen aurka neurtu beharko dituzte indarrak.

IAZKO FINALEKO HIRU BIKOTE

Txapelketako finalera heldu diren lau bikoteetatik hiru iaz ere finalean ikusi ahal izan genituen. Iker Mansok eta Ruben Iturbek izan ezik, gainerako hiru bikoteek iaz ere jokatu zuten finala. Lehen mailan, Oskar Azkaratek eta Tomas Jauregik eraman zuten txapela; eta bigarren mailan, berriz, Antton eta Jon Gurutz Biteri nagusitu ziren.

Aipatzekoa da, azkenik, pilotarietuek eurek halaxe eskatuta, goizean goiz jokatu dituzten partiduak, Udal Pilotalekuan. Horrela, bigarren mailako finala 08:30ean jokatu dute, eta lehen mailakoa, berriz, 09:30ean. Ez dakigu zapatu goizean horrelako orduetan jende askorik joango ote zaien animuak ematera, baina esan bezala, pilotarietuek eurek eskatuta jarri dituzte finalako partiduak ordu horietan.

Bestalde, sariak partiduak jokatu ostean banatuko dituzte Olalde elkarteak antolatzaileek.



Iker Manso eta Ruben Iturbe.

Oskar Azkarate eta Tomas Jauregi.



Antton eta Jon Gurutz Biteri.

Aitor Azkarate eta Andoni Rodriguez.



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

ANTZUOLA

Apaintetak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40

AITZ-GARBI



Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



Zikinkeriak kale bazterrean

Aiherra kaleko etxeen ostean, saihebiderean azpiko aldean, era guztietako zikinkeriak botatzen ditu norbaitek. Olio ondarrak, piper poteak..., denetarik azaltzen da etxe bazterrean botata. Argazkian ikus daitekeenez, etxearen horma eta espaloia- ren zati handi bat zikin-zikin eginda daude, eta nahiko lan izaten dute kale garbitzaileek ingurune hori garbitzen. Horrelako jarrera penagarriak salatu eta berriro gerta ez dadin eska- tzeke deitu zuen irakurle batek KONTUOLARA./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 12

12:00: Antzuola-Soraluze (gazteak)

PILOTA

Maiatzak 11 (Pala Txapelk. finalak)

Lehen mailako finala

8:30: Manso-Iturbe / Azkarate-Jauregi

Bigarren mailako finala

9:30: Azkarate-Rodríguez / Biteri-Biteri

EMAITZAK

FUTBOLA

Trintxerpe B 3 Antzuola 2 (2. erreg.)

Antzuola 2 Almen 0 (neskak)

Antzuola 2 Antoniano 3 (kadeteak)

PALA

Lehen mailako finalerdiak

Arbulu-Zabalo 27 Manso-Iturbe 30

Toledo-Peñalba 17 Azkarate-Jauregi 30

Bigarren mailako finalerdiak

Biteri-Biteri 30 Peñalba-Segurola 17

Azkarate-Rodríguez 30 Arregi-Gezalaga 14

Erregional mailako taldeak denboraldia amaitu du

Bigarren erregional mailako fut- bol taldearendako amaitu da 2001- 2002 denboraldia. Ligan ez ziren iaz bezain fin ibili, eta ez ziren igoera fasea jokatzeko sailkatu.

Kopan, berriz, taldeko lau- garren postuan sailkatu dira antzuolarrak, 15 punturekin, Uro- la B talde irabazletik 9 puntura. Kopan jokatu dituzten 11 parti- duetatik, lau irabazi, lau galdu eta hiru berdindu dituzte. Hor- taz, ez dira Kopa txapelketako finalerako ere sailkatu.

Andoni Azkargorta Bergaran hasiko da entrenatzaile

Bergara B taldea entrenatuko du Andonik datorren denboraldian. Erregionaleko lehen mailan dago talde bergarra, baina bigarren mailara jaisteko arriskuan.

Andonik lau denboraldi eman ditu Antzuolako talde erregio- nala entrenatzen; aurretik, gaz- teen eta infantilen entrenatzaile- a ere izan zen. Oraindik era- bakitzeke dago zeinek hartuko duen Andonik lagatako lekua.

LABUR

Udalak EHNA tramitatzea aho batez onartu zuten

Joan den asteko eguenean egin zuten osoko bilkuran, Euskal Herriko Naziotasun Agiriaren gaineko mozio bat aztertu zuten eta aho batez onartu zuten udalbatzarrak.

Antzuolako Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztu zuen mozio hori, eta EHNA tramitatzea eskatu zion Antzuolako Udalarari. Gauzak horrela, laster hasiko da Antzuolako Udala tramitazio lan horiek egiten. Udaletxean EHNA eskuratzeko eskaera orriak jarriko dituzte.

Udalekuak bost eta hamabost urte bitartekoendako

Uztailaren 1etik 18ra udale- kuak antolatu ditu Udalak, 5 eta 12 urte bitartekoendako. Ikastetxean elkartuko dira, goizero, 09:30etik 13:00etara. 72 umek eman dute izena eta bederatzi begirale ibiliko dira.

Aurten, 12 eta 15 urte bitar- tekoendako ere antolatu dituzte udalekuak, uztailaren 1etik 17ra. Ingelesez izango dira udaleku horiek. Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 22a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean edo libu- rategian.

Herri Urratsera joateko autobusa etzi, domekan

Herritar talde batek autobu- sa antolatu du etzi, domekan, Herri Urratsera joateko. Badi- ra urte batzuk Antzuolatik autobusik antolatzen ez dute- la; aurten, baina, antolaketa lanetan berandu samar ibili diren arren, egongo da Sen- perera joateko autobusa. 08:00etan irtengo da plazatik, eta 18:00etan izango da itzu- lera. Joan nahi dutenek egu- bakoitz iluntzea baino lehen eman beharko dute izena Juan Kruz argazki dendan.


ATREBENTZIA EZPADA / Autobus gehixagok falta egitten dau Bergararako?



PATXI GODOY
42 urte



ARANTZA AZURMENDI
40 urte



ANDOITZ PEÑAGARIKANO
17 urte



ANDOITZ ARANBURU
25 urte



MARI LUZ ALTZERREKA
65 urte

Bai, sarrixago egon bihar- ko lirake autobusak, bai- ña ez Bergarara juteko bakarrik. Dana dala, guk be kotxia gutxiagotan har- tu biharko giñuke.

Bai, pentsatzen jat auto- bus gutxi dagola. Kotxe- rik ez daukenak ezin dira irten be egin; gainera, udan gehixago egon biharko litzake.

Bai, ondo egongo litzake; jente gehixago juten gara Urretxu aldera pizine- tara, baiña Bergarara autobus gehixago egotiak ez leuke kalterik egingo.

Ba, egixa esan, ez dakit zenbat autobus eta ze ordutan egoten diran be. Izan be, ez dot autobusik erabiltzen, kotxian ibil- tzen naiz.

Bai, Antzuolan ez dago- eta bat be autobusik. Pasa- tzen dana da jente gehi- xenak daukala kotxia eta igual ez da autobus asko- rik be biharko.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 10a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com



Mezaren ostian, Bergarako Moises Azpiazu dantza taldekuek erakustaldixa egingo dabe Asentzio Egunian.

Domekan jente ugari batuko da Asentzion

OXEL EROSTARBE

Urtero moduan, Asentzio Eguna izango da domekan. Aurten be gaztetxiak hartu dau jaixa antolatzeke arduria. Goizian hasi eta iluntzera arte, Asentzioko potzuaren inguruan herrittar eta kanpotar ugari batuko dirala espero dabe Elgetako gaztiek.

Goizeko 10:30ian, Arrantza Txapelketiakin ekingo dotsa aurtengo Asentzio Egunak. Izenemotia Asentzion bertan izango da.

Goizeko 11:30ak aldera, Elgetako trikitilarixek jardungo dabe Asentzion. Urtero moduan, Gure Bordakuek saldia eta txorixua gertautu eukiko dabe ordurako.

Eguerdiko 12:30ian, mezia izango da Asentzioko ermittan.

Mezaren ostian, dantza erakustaldixa egingo dabe. Elgetako neska-mutikuak hasiko dira, euskal dantzekin. Gero, Bergarako Moises Azpiazu taldekuek trikitixa erakustaldixa egingo dabe.

Bestetik, Asentzioko bolotokixa be gertu eukiko dabe domekarako, eta egun osuan egongo da bolotan egitteko aukeria.

Eguraldixak laguntzen badau, bazkarixa Asentzion izango da.

**Gaur, gabeko
23:00etatik aurrera,
Asentzio bezperako
kontzertua izango
da gaztetxian**

Eta eguraldi txarra egin ezkerro, frontoi zaharrera juango dira, beste urte batzuetan moduan.

Bazkalostian, erromerixia izango da, iluntzera arte, Anso-rreri eta Narbaizakin.

ERROMERIXIA GAZTETXIAN

Asentzio bezperako kontzertua gaur izango da, barikua, gabeko 23:00etatik aurrera.

Ska eta trikiti doiñuak entzuteko aukeria izango da. Horretarako, bi talde izango dira gaztetxian: The Cyprinidians eta Enekin. Beste urtietan moduan, antolatu ditzuzten ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi ditzue herrittarrak gaztetekekuek.

Aurtenguan be egitaraua polita osatu dabe herriko gaztiek. Domekan zein eguraldi egingo daben jakitzia geratzen jaku.

ELKARRIZKETA

IBAN ETXEBERRIA/DEGABEHIBAKO TEKNIKARIA

“Legedi eta dirulaguntzen berri ematen dugu”

O.E.

Dagoeneko bi astean gerturatu da Iban Etxeberria bergararra Elgetako bizilagunoi etxeak zaharberitzeko dauden laguntzen berri ematera. Aurrerantzean ere udaletxean jardungo du, martitzen goizetan.

Zeintzuk dira Degabehibak eskaintzen dituen zerbitzuak?

Batetik, etxean edo komunitateko eraikinean berrikuntzak egiteko dauden dirulaguntzen berri eta, bestetik, komunitatean berrikuntzak egiteko dagoen legediaren berri ematen dugu. Adibidez, igogailua jarri edo teilatua konpontzeko bozketa bat egin behar izaten da komunitatean. Berrikuntza horiek egiteko bozketako emaitza zein izan behar-ko litzatekeen azaltzen dugu.

Zeintzuk dira elgetarron zalantza nagusiak?

Kontsulta gehienak izan dira etxe barruan berrikuntzak egi-



teko dauden dirulaguntzak zeintzuk diren galdetzeko. Horrez gain, etxebizitzaren salerosketen gaineko informazioa eta teila-tuak konpontzeko dirulaguntzen berri ere eskatu dute zenbaitek.

Zein egunetan etorriko zara Elgetara?

Martitzenetan izango naiz Elgetan, 09:30etik 11:00etara. Informazioa nahi duten herritarrek udaletxera deitu behar dute, aurretik txanda hartzeko.

LABUR

Domekan, urrezko ezteiak ospatu zituzten Mendi Mendian elkarteko bazkideek

Mendi Mendia herriko elkarterik zaharrena dugu. Aurreko domekan, sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko, elkartean batu ziren bertako bazkideak. Giro paregabea, bazkari goxoa gertatu zuten domekan.

Elkartean ez ezik, eguerdi aldera giro paregabea izan zen herriko kaleetan ere, Mendi Mendian elkartekoez gain, Ozkarbi elkarteko bazkideek ere urteroko bazkaria egin zuten-eta.

Eguena izango da Bainu-etxe Programan izena emateko azkeneko eguna

Inersok antolatzen duen Bainu-etxe Programan izen emateko azken eguna datorren eguna izango da, hilak 16. Egundik aurrera arte, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman dezakete izena interesa dutenek. Zalantzarik izanez gero, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jotzea eskatu dute. Egonaldien prezioa irabazien arabera izango da. Hainbat leku daude aukeran. Eta leku horien berri gizarte laguntzaileak emango die udaletxera gerturatzen diren guztiei.

KIROLAK

Laster, favoritoak Lau t'erdiko Txapelketan

O.E.

Ozkarbi Pilota Taldeak antolatzen duen Lau t'erdiko Txapelketa azken txanpan sartuko da laster. Lau t'erdiko Txapelketari ekin zioten pilotari erdiak kanporatuta daude dagoeneko.

Maila bakoitzean 32 pilotari geratzen dira eta txapelketa irabazteko favoritoak laster hasiko dira partiduak jokatzeko.

Aurtengoan ere amateur mailako txapelketa garrantzitsuenetakoan txapela janzteko faboritoen artean daude Oinatz Bengoetxea eta Ander Agesta. Bi pilotari horiek maiatzaren bukaeran ekingo diote txapelketari.

Xabier Ubera gazte elgetarra ere favoritoekin batera sartuko da Lau t'erdiko Txapelketan; izan ere, iaz final-laurdenetara hel-


tzeak aukera hori ematen dio Elgetako pilotari gazteari.

Gazteen mailan, Castillo iurretarra da Lau t'erdiko Txapelketako txapela janzteko aukera gehien dituen pilotaria.

Bestalde, zenbait sorpresa ere izan dira txapelketan dagoeneko: txapela janzteko faboritoen artean zeuden zenbait pilotarik euren partiduak galdu dituzte. Eta horren adibide garbia dugu Erreizenea; Erreizeneak Martinen aurka galdu zuen.

Ozkarbi Pilota Elkartekoek adierazi digutenez, urtero moduan, jende ugari etorri da partiduak ikustera. Aurtengoan ere jaietan izango dira finalak eta ETBk zuzenean emango ditu.

Oraingo asteburuan, bari-kuan eta domekan jokatu dira txapelketako partiduak.



Laster ekingo dio Xabier Ubera elgetarrak txapelketari.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- 15:00: Komando Piperrak-Txapela Vicios
- 16:00: Vicios-La Kokotxa Txapela
- 17:00: Spias-Bar El Arco La kokotxa
- 18:00: Arineketan-Chievo Spias

EMAITZAK

- Arineketan-Spias 6-1
- Vicios-Chievo 3-3
- La Kokotxa-MTS 3-4
- Comando Piperrak-Bar El Arco ... 4-5

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	4	2
2. Chievo	3	2
3. Vicios	3	2
4. MTS	2	2
5. Spias	2	2
6. Bar El Arco	2	2
7. Komando Piperrak	0	1
8. Txapela	0	1
9. La kokotxa	0	2

EUSKALKIAREN EGUNA

Ekainaren 1ean, Euskalkiaren Eguna antolatuko dute Espaloian

O.E.

Goibeko kultura elkarteak eta Badihardugu elkarteak antolatuta, Euskalkiaren Eguna izango da ekainaren 1ean.

Egun horretarako antolatuko duten egitaraua ia zehaztuta dute bi elkarteek. Batetik, GOIBEKOKALEk 100 ale beteko dituela eta, herri afaria, antzerkia eta Tapia eta Leturia taldearekin erromeria antolatuko dituzte. Eta bestetik, euskalkia lantzen diharduen Badihardugu elkarteak Batzar Orokorra egingo du.

Euskalkiaren Egunean, euskalkiaren gaineko zenbait hitzaldi eta liburu aurkezpen egiteko asmoa ere badago. Eta horrez gain, erakusketa ere jarriko dute, GOIBEKOKALEk zazpi urte hauetan ateratako erretratuekin eta egin duen ibilbidearekin.



Tapia eta Leturiak alaituko du gaua Euskalkiaren Egunean.

LAPURRETAK

Lapurrak atxilotzea lortu du Ertzaintzak

O.E.

Kontxi arrandegian eta Ana Mari liburu dendan lapurrak sartu ziren astelehen goizaldean. Liburu dendako alarmak behar bezala funtzionatu, eta lapurrek ihes egin zuten. Ihes egiteko erabili zuten autoan atxilotu zituen hiru lapurrak Ertzaintzak, Zarautzen.

Berrero ere lapurren bisita izan genuen aurreko domekan. Elgeta ez zen izan lapur horiek bisitatu zuten herri bakarra; izan ere, Ertzaintzak egin dituen ikerketen arabera, lehenago Zumarraga, Antzuola, Arrasate eta Bergaran ere ibili ziren.

Lehenago ere zenbait lapurreta gertatu izan dira inguruan. Lapurrek, ordea, ihes egitea lortu dute orain arte. Baina dome-

kan ez zuten zorte bera izan. Antzuolako eta Elgetako zenbait bizilagunek hiru lagun ikusi zituzten Bizkaiko matrikula zuen Renault 19 baten ihes egiten.

Goizeko laurak aldera Zarauzko ordaintokian atxilotu zituen Ertzaintzak lapurrak. Lapurretak egiteko tresneria eta lapurtutako zenbait objektu eta dirua antzeman zizkieten autoan.

Elgetan, Kontxi arrandegian eta Ana Mari liburu dendan sartu ziren lapurrak. Arrandegian, leihotik sartu eta kaxan zegoen dirua eraman zuten. Liburu denda, dirua eramateaz gain, argazki-kamera ere eraman zuten. Atxilotu zituztenean lapurrei dirua atzeman zieten arren, argazki-kamera momentuz, behintzat, ez da agertu.

Dirudienez, Ostatu jatetxean sartzeko saiakera ere egin zuten.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

Elgeta-Piel
Neguko denboraldi berria

Asteleheneetik barikura:
17:00-20:00
Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA
943 76 81 12

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

TAPEM S.A.

Trokelak eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

ERRETRATUZAHARRA

Bizikletarekin
Deskargan,
1956. urtean

Argazkian agertzen den laukoteak txirindularitzarako zaletasuna zuen gaztetan, eta, antza denez, bizikleta hartu eta domekero elkarrekin irteeraren bat egiteko ohitura zeukaten. Zenbaitetan 200 kilometroko irteerak ere egiten zituzten, Jose Aranguren azaldu digunez. Errepideak egoera kaskarrean ziren orduan, baina gaur baino ibilgailu askoz ere gutxiago ibiltzen ziren. Bizikletak ere nahiko pisutsuak ziren, eta benetako zaleak irteten ei ziren errepideetara. Ondoa daukagun argazkian Deskargako gainean dago laukotea, ezkerretik eskumara: Jose Aranguren, Jesus Arantzabal, Jesus Frago eta Patxi Odriozola. Antza denez, amateur mailako probaren bat ikustera joan ziren Deskargara. Jakingo duzuenez, Jesus Arantzabal angiozartarra profesionaletan korritzera iritsi zen handik urte batzuetara.

Argazkia: Jose Aranguren.



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

'Eguzkialde'
txaletaren
ordez, etxeak

Orain dela zazpi urtera arte, *Eguzkialde* izeneko txaleta zegoen Fraisko-zuri eta Irizar kaleek bat egiten duten izkinan. Eraikin bitxia zen hura, hesi batez inguratutako lorategi ederrarekin, eta tenis pista bat ere bazuen alboan. Txalet hura 1995eko abuztuaren erdialdean bota zuten, eta Arregi Eraikuntza enpresak etxebizitza berriak eraiki zituen hantxe.



1995

Balio artistiko handirik ez izan arren, *Eguzkialde* txaleta Irizar kaleko eraikin adierazgarrienetako bat genuen.



2002

Etxebizitzak egin zituzten *Eguzkialde* txaleta zegoen lursailean. Eraikinaren tximistorratza da geratzen den elementu bakarra.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



JANTZIDENDAK ETA KIROLDENDAK

Bergara Piel. Espaloia 6
Cristina. Arruriaga 44
Gallastegi. San Pedro 15
Ikus-Bi. Irala 5
Jauja kirolenda. Irizar 3
Laket. Barrenkalea 35
Mujika jostundegia. San Martin plaza
Subijai. Irizar 1
Zatoia. Barrenkalea 4
Zubikua. Barrenkalea 24

OINETAKOAK ETA POLTSAK



Agirrebeña. Urteaga 5
Aldasoro. Espoloia 4
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
Egizabal. Bidekurutzeta 13
Galarreta. Irizar 2
Lazkano. Barrenkalea 15
Lonbide. Bidekurutzeta 5
Retegi. San Pedro 18



BURDINDEGIAK- BRIKOLAKETA LOREAK ETA PENTSUAK

Ardatza brikolaketa. Masterreka 4
Gaztelu burdindegia. Mintegi 1
Gisasola burdindegia. San Pedro 8
Lislore lorelenda. Barrenkalea 28
Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22




ZERBITZUAK

Barcelo bidaiak. Zurradero 4
Carasa, Cilveti, Lacort y Cia.
aseguroak.
Fleming doktorea 3
Lagun Aro. Ramon Maria Lili 6
TGB aholkularitza. Matxiategi 36
Zurich. Barrenkalea 44

Tratu zuzenagoa, segurtasuna, konfidantza eta gertuan dauzkazu!

Bergara, zure zentru komertziala



HARATEGIAK


Igarza J.J. Irizar 3
Imaz S. Aranerreka 1
Leturia I. Zubiaurre 23
Leturia J.L. Artekalea 5
Leturia J.M. San Pedro 24
Rezola L.M. Matxiategi 7
Urzelai P. Ibarra 7



PAPERDENDAK- TINDATEGIAK- BESTE

Elkar fotokopiadenda. Arruriaga 1
Ikasle. Fleming doktorea 11
Jolas. Barrenkalea 27
Marcó. Bidekurutzeta 44
Onena tindategia. Barrenkalea 29
Renteri tindategia. Ikerleku 4

ELEKTRAGAILUAK




Biltoki. Barrenkalea 6
Herran. Matxiategi 3
Jakina. Amillaga 10
Radio Bergara. San Pedro 25
Santos RTV. Masterreka 2

PERFUMERIAK



Amaia. Barrenkalea 25
Camacho. Bidekurutzeta 24
Egiluz. Irizar 3
Gojara. Irala 3
Igaro. Barrenkalea 35

OPTIKAK- BITXITEGIAK- ARGAZKIAK



Argazki. Barrenkalea 16
Etxeberría. Bidekurutzeta 16
Kiñu. Barrenkalea 35
Manso optika. Irizar 2

OSTALARITZA



Agirrebeña. Ibarra 2
Arrano. Kruz Gallastegi 5
Azpeitxi. Aranerreka 13
Canalejas. San Antonio 6
La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23
Erreki. Fraiskoziuri 3
Euskalduna. Osintxu
Ganbara. D. Irala z/g
Gaspar. Barrenkalea 31
Guria. Bidekurutzeta 5
Infernukua. Masterreka 23
Larrañaga banatzailea. Martoko 3
Lasa. Ozaeta jauregia
Maxim's. Simon Arrieta 5
Miner banatzailea. Matxiategi 23
Nahikari. Masterreka 20
Pol-Pol. Komenio kalea 11
Sirimiri. Barrenkalea 3
Torrekua erretegia. Ibarra 37
Zabala. Ibarra 14
Ziripot. Bidekurutzeta 11
Zumelaga. San Antonio 5



OIHALAK


Anezka. Espoloia 8
Artazi. Katabia z/g
Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
Fernandez. Ibarra 2
Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3
Maher. Bidekurutzeta 29

MERTZERIAK- LENTZERIAK



Gantxegi. Aranzadi 2
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
Igarza. Irala 5
Itziar. Matxiategi 1
Juana elgetarra. Zubieta 28
Mirari. Martoko 32
Nerea. Simon Arrieta 1
Phildar. Irala 5

JANARIDENDAK



Erosle Mazorriaga. San Pedro 21
Goxo-Toki gozotegia. Irala 3
Hurbil dietetika. Aranzadi 2
Itxas Eder arraindegia. Mintegi 5
Kabutzia arraindegia. Fraiskoziuri 6
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
Mujika gozotegia. Artekalea 3
Txukun. Fraiskoziuri 6
Zapaferikua. Joan XXIII.a plaza.

ALTZARIAK, DEKORAZIOA



Biltoki. San Martin plaza 2
Edertu. Barrenkalea 23
Guridi. Artekalea 8
Rementeria. Artekalea 6
Kanela. Espoloia 10





RENAULT

RENAULT ■ ■ ■
VELSATIS



Argia

Berritzailea

Paregabea

RENAULT ■ ■ ■
VELSATIS

Sentitu ber-bertatik berlinaren kontzeptu berria

Autoa Ezagutzeko Eguna

Ausarta

Mecak, bezero berezia zaren horri, atsegin handiz dei egiten dizu, **Renault**ten modelo irten berria ezagutzera: **VelSatis**. Berlinaren kontzeptu ausart honek gehiago eskaintzen dizu segurtasun, erosotasun eta prestazio arloetan.

Eskatu ordua **943 71 21 67** telefonora deituta eta zehaztu eguna eta ordua, eta datorren maiatzaren **9, 10 eta 11n** ber-bertatik sentitu ahalko duzu **Renault VelSatis** irten berria. Halako ibilgailu bat, non bere linea orijinal eta berritzaileak eta barruko erosotasunak paregabe nortasuna ematen dioten.

Harrigarria

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72

